

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Munduari biraka

SEVILLA (ESPAINIA), 1519KO ABUZTUAREN 10A. Lehen aldiz munduari bira emateko espedizioa abiatu zen. Juan Sebastian Elkanok bertan zen, noski, baina ez zen euskaldun bakarra.

Martin Goitisoloko semeak ere Magallanesen espedizioan parte hartzeko izena eman zuen. Bidaia hasi eta 38 egunera, Goitisoloko matxinatu egin zen, beste hainbat marinelekin batera. Bakiotarra buru zuen taldeak itsasontzietako bat hartu zuen eta munduari bira emateko abenturari uko egin zioten. Hurrengo bost urtetan piraterian aritu ziren.

1522ko irailean, espedizioak Borneoko artxipelagoan egin zuen geldialdia, hornigaiak lortzeko asmoz. Marinel talde bat lehorrera jaitsi zen; horien artean zen Juanes Urrutia euskalduna. Beharrezko zuten guztia bildu ondoren, marinela ontzietara itzuli ziren eta, berehala, espedizioak aurrera egin zuen. Bidean, Urrutia falta zela konturatu ziren. Euskaldunak, nonbait, paradisu hartan gertzea erabaki zuen. Ez zuten inoiz haren berririk izan.

Goitisoloko eta Urrutia ez ziren historian sartu, Elkanok bezala. Baina getariarrak ere, bizi zen artean, ez zuen lortu bere balentriak merezi zuen saria. Sari ekonomikoa ez behintzat. Juan Sebastian Elkanok 1526an hil zen, Ozeano Barean, eskorbutuak jota. Hamar urte geroago, Elkanoren amak Catalina del Puertok, munduari bira emateagatik semearekin agindu zioten soldata erreklamatzeko jarraitzen zuen. Eta 1567an Elkanoren iloba Francisco Gainza oraindik

Lerro hauen alboan, Juan Sebastian Elkanok. Haren ondoan Andres Urdaneta. Elkanok lehenik eta Urdanetak gero, biek eman zioten bira planetari. Azpian, Magallanesek erabilitako Nao Victoria ontziaren erreplika zehatza.



Espainiako koroarekin auzitan zen, osabarekiko zorrak kitatu ez zituztelako.

Elkanoren heriotzaren lekuko, besteak beste, Andres Urdaneta ordiziarra izan zen. Ez dakigu koroak Elkanorekin zituen zorren berri ba ote zuen. Baina edukitzekotan, horrek ez zion nabigatzeko gogorik kendu. Hamar urte geroago, 1536an, munduari bira eman zion bigarren espedizioak Andres Urdaneta izan zuen buru. ■

ARRASTOAK



Mikhail Kalashnikov, berak asmatutako arma eskuetan.

"LASAI EGITEN DUT LO".

Horixe adierazi berri du Mikhail Kalashnikov-ek *The Guardian* egunkarian argitaratutako elkarrizketa batean.

Modu horretan, 1919an jaio zen sobietar militar ohiak argi utzi nahi izan du ez zaiola damutzen joan den mendeko 40ko hamarkadan bere izena daraman fusila asmatu izana.

Ejertzito Sobietarra 1947an hasi zen erabiltzen Kalashnikov fusila, eta hortik datorkio AK-47 izena (Avtomat Kalashnikov, 1947ko modeloa). Geroztik, arma ezagunaren ehun milioi aletik gora saldu dira mundu osoan. Gaur egun, hamalau herrialdek fabrikatzen dute eta munduko ejertzito, gerrilla eta talde armatuen artean fusilik zabalduena da.